BALDINTZA TEKNIKO ZEHATZEN AGIRIA ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO

GOIKALE ETA INGURUA EGOKITZEKO OBREN EGIKARITZE-PROIEKTUA, BI FASETAN: GOIKALE EGOKITZEA ETA NAREA BIDEKO LOTURA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hau da: Aulestiko Goikale eta Narea bideko lotura egokitzeko obren Egikaritze-Proiektua, kontratu izaera izango duen espedientean dagoen dokumentazio teknikoa jarraituz.

2. LEHIAKETARAKO ESKAINTZA TEKNIKOA OSATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA

1. MEMORIA.

Ikuspegi funtzionaletik eta baita ikuspegi espazial, konpositibo eta gainerako ikuspuntuetatik proposatutako konponbidea azaldu eta justifikatzen duen dokumentua da. Baita ere hirigintzako, arloko eta kultura ondarearen babeserako araudiaren betetzea.

Gehienezko luzera: 6 orri DIN A4.

2. PLANOAK.

Kaleen eta eraikinen gaur egungo egoera eta memorian jasotako proposamena adierazten duten dokumentu grafikoak dira.

Gehienezko luzera: 8 plano DIN A3.

3. LANEN EGITARAUA.

GANT motako diagramen bitartez aurreko proposamenaren onarpenerako eta proiektu osoaren idazketarako aurreikusitako epeen betetzea justifikatzen duen dokumentua da, aldi berean idazketaren fase bakoitzarentzat jarritako giza baliabideak eta baliabide materialak adieraziz. Esleipendunak, proiektua behar bezala idazteko dituen betebeharrez aparte, parte hartuko du, hala eskatzen zaionean, Udaletxean edo beste erakunde batzuetan lanen garapen egokirako beharrezkoak diren prestatze edo jarraipen bileretan, eta beraietan sortu edo adosten diren aldaketak egingo ditu. Idazte kontratuaren esleipendunak idatzi beharko ditu batzar hauen aktak eta alde guztiei bidali. Bere eskaintzan proposatutako baliabideen funtzionamendu eta antolaketa irizpideak adierazi beharko ditu.

Gehienezko luzera: DIN A3 orri 1.

4. OBRAREN KOSTUAREN BALORAZIOA.

Lizitatzaileak obraren egikaritza materialaren prezioaren balorazio bat egingo du proposamenean jasotako eraikitako azalerak jarraituz, adieraziz gutxienez prezio/m² ratioa proiektua osatzen duten parte bakoitzarentzat. Bi aurrekontu bereiziko dira, bana fase bakoitzerako.

Gehienezko luzera: DIN A4 orri 2.

Aurreko ataletan jasotako informazio guztia, edizio informatikoko bere formatu ezberdinetan, gainerako dokumentazioarekin batera bilduko da dagokion gutun-azalean. Marrazketa formatuak ohiko programekin maneiatu ahal izan beharko dira egiaztapenetarako beharrezkoa balitz, beraz, PDF formatuan aurkeztu ezkero, DWG formatuan ere aurkeztu beharko da horrela eskatuko balu Kontratatze Mahaiak.

3. AURREKO FASEA: AURREPROIEKTUA

1. Lehiaketa ebatzi ondoren eta esleituta jada zerbitzuen kontratua, bere esleipendunak proposamena landuko du aurreproiektu mailan. Horretarako, lizitazioan aurkeztutako dokumentazioan oinarrituz, kontratatze-organoak egindako iradokizunak jasoko ditu.

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

2. Fase honen xedea da era xehatuan definitzea proiektuaren ezaugarri orokorrak, eta HOGEITA BAT (21) LANEGUNEKO iraupena izango du kontratua sinatzen denetik hasita. Definizio maila nahikoa izan behar da, kontratatze-organoak onartu ondoren, proiektuaren egileak egikaritza-proiektua ezarritako azken epea baino lehen idatzi ahal izateko BERROGEI (40) LANEGUNETAN kontratatze organoak aurreproiektua onartzen duenetik hasita).

4. PROIEKTUAREN IDAZTE-FASEA

1. Kontratatze-organoak aurreproiektuko proposamena onartu ondoren, bere esleipendunak proposamen hori landuko du, dagokion egikaritza-proiektua idatziz, eta baita ere dagokion instalazio eta gainerako proiektuak.

2. Egikaritzako proiektuetako dokumentazioa BI FASETAN BANATUTA (arlo bakoitzari dagozkionak) zazpi multzotan bilduko da:

Memoria eta Eranskinak.

Planoak.

Baldintza Tekniko Zehatzen Plegua.

Neurketak / Aurrekontuak.

Segurtasun eta Osasungarritasun Azterlana.

Kalitatearen Kontrolerako Plana.

Hondakinen Kudeaketarako Azterlana

Desjabetze-azalerak, jabeak eta aldi baterako okupazioa zehaztuta. Memoria eta planoak.

3. Proiektua aurkeztu baino lehen, dokumentazio guztia aztertuko da, lizitazioan ezarritako arauetara egokitzen den egiaztatzeko eta datu ezberdinak berrikusiz (sinadurak, eranskinak, planoak eta abar).

4. Esleipendunak proiektuen hiru ale aurkeztuko ditu, behar bezala koadernatuak DIN-A2 edo DIN-A4 tamainan, itxiera duten kutxa gogorretan.

Grafikoak ez diren dokumentuek orri bakoitza korrelatiboki zenbatua eraman beharko dute, behar den bezala berezituz bere atal nagusiak lokalizatzeko erraza den eran. Dokumentu bakoitza banaka koadernatuta joango da, planoak izan ezik. Azken hauek solte joango dira.

Plano guztiek bere beheko eskumako aldean identifikazio zigilu edo karatula bat eramango dute. Plano bakoitzean agertu beharko dira bere idazketan parte hartzen duten teknikariek eta proiektuko zuzendaria.

Plano bakoitzaren eskala alfanumerikoaz aparte, eskala grafiko bat ere jarriko da, balizko murrizketa edo handitzeak aurreikusteko. Planoen aurkibide oso bat aurkeztuko da, planoaren zenbakia, edukia eta eskala adieraziz.

Dokumentazio guztia proiektuko zuzendariak eta parte hartzen duten teknikariek sinatua etorri beharko da.

Aurkeztuko dira ere proiektuaren hiru kopia euskarri informatikoan, CD edo DVDan, Autocad-ekin (DWG) bateragarri den formatuan planoen kasuan, eta Presto (BC3) eta Word-ekin (doc) bateragarri, neurketa eta testuentzat, hurrenez hurren.

Aurreproiektua onartuta eta esleipendunari jakinarazi ondoren, egikaritza-proiektua gauzatzeko gehieneko epea BERROGEI (40) LANEGUNEKOA izango da, hala balitz Udalak baimendu ahal izango dituen luzapenekin, apropostzat jotzen diren aldaketen arabera. Proiektuaren gutxieneko edukia, 4.2 klausulan adierazitako dokumentu multzo bakoitzarekin bat etorriz, ondoko hau izango da:

1. MEMORIA ETA ERANSKINAK.

1.1. Aurrekariak:

- Proiektuaren xedea.
- Erredaktore-taldea.
- Proiektua egiteko agindua.

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

1.2. Jarduketa eremuaren deskribapena:

- Kokapena.
- Deskribapena.
- Dauden eraikinak.
- Topografia, azalera, mugak.
- Hirigintza-araudia: indarreko plangintza.
- Kultura ondareari buruzko araudia.
- Ordenantzak.
- Lurzoruaren kalifikazioa.
- Hiri-zerbitzuak: Sarbideak.
- Iturgintza.
- Energia elektrikoa.
- Klimatizazioa.
- Saneamendua.
- Ahotsa eta datuak.
- Gasa.
- Suteen aurkako babesa.
- Itxurazko zorguneak: eroanbideak, eraikinak.
- Gainerako beste edozein.

1.3. Programaren garapena.

- Hautatutako konponbidearen justifikazio eta deskribapena bere ikuspegi tekniko, funtzional eta ekonomikoaren aldetik.
- Hirigintza-araudiaren betetzea. Konparaketa koadroa.
- Azalera erabilgarri eta eraikien koadroak.

1.4. Azterketa teknikoa.

Konponbide tekniko eta funtzionalak eta erabilitako materialak deskribatu eta justifikatuko dira era argi eta xehatuan, aurrekontuko atalen ordena jarraituz.

1.5. Azterketa ekonomikoa.

Aurrekontuaren laburpen orokorra sartuko da, atalez atal banakatua, osoarekiko bakoitzari dagokion ehuneko ehuna adieraziz.

Adieraziko da ere m² eraiki orokorraren batez besteko kostua.

1.6. Memoriaren eranskinak.

- Obra osoa: proiektuak obra oso bat hartzen duenaren adierazpena.
- Aurre zuinketa-akta.
- Zimendatze eta egituren kalkuluari buruzko memoria.
- Instalazioen kalkuluari buruzko memoria.
- Irisgarritasun eta oztopoen kentzeari buruzko indarreko araudiaren betetzearen justifikazioa.
- Nahitaez bete beharreko araudiaren zerrenda.
- Datu osagarriak:

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

- Aurrekontuaren laburpen orokorra.
- Egikaritze-epea.
- Kontratistaren sailkapena.
- Prezioen berrikuspenerako formula.
- Kontratuaren kategoria.

- Lanen programa.

2. PLANOAK.

Obra behar bezala definituta geratu dadin beharrezko plano orokor eta xehatuak hartuko ditu. Akotatuta etorri beharko dira eta nahiko deskribagarri izan beraietatik antzemateko aurrekontuaren oinarri izan beharko diren neurketak. Argi eta garbi bereiziko dira bi faseak, bakoitza bere aldetik lizitatu ahal izateko.

Proiektuaren zehaztapen hoberena izateko komenigarrien diren eskalak erabiliko dira. Gomendatzen dira, arau orokor giza, ondokoak:

- Plano orokorrak: 1/100-1/200-1/500.
- Arkitektura edo obrako planoak : 1/100.
- Plano xehatuak: 1/20-1/10-1/5.

Aurkibide bat erantsiko da proiektuko plano guztien zerrenda zehaztuz.

3. BALDINTZA TEKNIKO ZEHATZEN PLEGUA.

Obra unitate ezberdinen eta idazpen hutsen ordainketen neurketa eta baloratze era zehaztuko du; era berean, onarpenerako aurreikusitako arau eta frogak zehaztuko ditu, eta baita ere obrak izan behar dituen ezaugarri teknikoak eta aurrekontua osatzen duten unitate bakoitzaren prezioa.

Ahal den neurrian, saihestuko da zeharkako aipamenak egitea proiektuko beste dokumentu batzuei.

4. AURREKONTUA.

4.1. Neurketak.

Planoan dauden datuei buruzkoak izango dira eta xehetasun maila nahiko izango dute era horretan obra unitate ezberdinak identifikatu ahal izateko. Argi eta garbi bereiziko dira bi faseak, bakoitza bere aldetik lizitatu ahal izateko.

Baldintza teknikoen pleguak zehaztutako eran egingo dira eta proiektuko gainerako dokumentuekin (memoria eta planoak).

4.2. Banakatutako prezioak.

Unitate ezberdinen prezioak kalkulatzeko ondokoak gehituko dira:

- Eskulan zuzena, errendimenduak finkatuz.
- Materialen prezioak obran bertan jarrita, kopuruak finkatuz.
- Baliabide osagarriak.
- Zeharkako kostuak.

Ez da onartuko banatu gabeko preziorik ez idazpen hutsik, kasu berezi eta behar bezala justifikatuetan izan ezik.

4.3. Aurrekontuen laburpen orokorra.

Aurrekontuaren Laburpen Orokor dokumentuan, portzentaje bat adieraziko da gastu orokor eta etekin industrialarentzat. Guzti horri %21eko, edo unean une aplikagarri den, BEZ aplikatuko zaio.

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

5. SEGURTASUN ETA OSASUNGARRITASUN AZTERLANA.

Argi eta garbi bereiziko dira bi faseak, bakoitza bere aldetik lizitatu ahal izateko.

Azterlanak edukiko ditu, gutxienez, ondoko dokumentuak:

a) Memoria, deskribatuz erabiliko diren edo erabili espero diren prozedura, ekipo tekniko eta baliabide osagarriak; saihestu daitezkeen lan-arriskuen identifikazioa, horretarako beharrezkoak diren neurri teknikoak adieraziz; aurrekoan adierazitakoaren arabera ezabatu ezin daitezkeen lan-arriskuen zerrenda, arrisku horiek kontrolatu eta gutxitzera zuzendutako prebentziozko neurri eta babes teknikoak zehaztuz, bere eraginkortasuna baloratuz, bereziki neurri alternatiboak proposatzen direnean. Baita ere, erabili beharko dituzten langile kopuruaren arabera obrako lantokiak izan behar dituen zerbitzu sanitario eta amankomunekoen deskribapena ekarriko du.

Memoria egiterakoan kontutan hartu beharko dira obra kokatzen den inguruneko baldintzak. Baita erabiliko diren material eta elementuen tipologia eta ezaugarriak, eraikitze-prozeduren eta lanen egikaritza ordenaren zehaztasuna.

b) Baldintza zehatzen plegua; bertan kontutan hartuko dira obra zehatzari dagozkion ezaugarri teknikoei aplikagarri zaizkion legezko eta erregelamenduzko arauak, eta baita makina erabilgarri, tresna sistema eta prebentziozko ekipoei dagokionez bete beharko diren baldintzak.

c) Memorian zehaztutako prebentziozko neurrien zehaztapen egokirako beharrezkoak diren grafiko eta eskemen plano xehatuak, beharrezkoak diren ezaugarri teknikoak adieraziz.

d) Proiektatu edo zehaztu diren laneko segurtasun eta osasungarritasun unitate edo elementu guztien neurketak.

e) Segurtasun eta osasungarritasun azterlana aplikatu eta gauzatzeko aurreikusten den gastu multzoa zenbatzen duen aurrekontua.

6. KALITATEAREN KONTROL PROGRAMA.

Proiektuak Udalak ezarritako kalitate maila asetzeko beharrezko diren zehaztasunak jasoko ditu; zehaztapen maila horrek ahalbideratu beharko du proiektuaren egilea ez den beste fakultatibo gaitu batek interpretatu, onartu eta zuzendu ahal izatea.

Proiektuak hartu beharko du bere memorian materialek, obra unitateek eta bere egikaritzak bete beharreko ezaugarri eta eskakizunak, obraren sustatzaileak aurreikusitako kalitate-maila jarraituz.

Proiektuak hartuko du, memoriaren eranskin bezala, Kalitatearen kontrol plana; plan honek obra aurreikusitako kalitate-mailarekin bat datorrela egiaztatzeko beharrezkoak diren dokumentazio eskakizunak eta saiakerak zehaztuko ditu. Edonola ere, proiektuak irizpide zehatzak ekarriko ditu energia eta ingurumen kalitateari buruz, eta baita kontserbazio, mantentze eta larrialdiei buruzko gidalerroak.

7. HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZKO AZTERLANA.

Ekarriko du gutxienez:

a) Obran sortuko diren eraikuntza- eta eraispen-hondakinen eta –materialen kantitatearen zenbatespena, tonatan eta metro kubikotan adierazia, eta kodifikatua. Hondakinak balorizatzeko eta ezabatzeko lanak eta Europako Hondakin Zerrenda argitaratzen dituen 2002ko otsailaren 8ko MAM/304/2002 Aginduak argitaratutako Europako Hondakin Zerrendaren arabera egingo da kodifikazioa, edo haren ordezko arau baten arabera. Zenbatespen hori egiteko, eranskin honetako tauletan jasotako balioak erabiliko dira. Balio horiek dekretu honetan aratutako fidantza estimatzeko ere erabiliko dira.

b) Proiektuaren helburu den obran hondakinen prebentzioa egiteko neurriak.

c) Obran sortuko diren hondakinei egingo zaizkien balorizazio- edo ezabatze-lanak.

d) Hondakinak obran bereizteko neurriak.

e) Obra barruan eraikuntza- eta eraispen-hondakinak biltegiratzeko, maneiatzeko, bereizteko eta, hala dagokionean, beste kudeaketa-lan batzuk egiteko aurreikusitako instalazioen deskribapena. Halaber, obra barruan non kokatuko diren zehazteko planoa aurkeztuko da, eta, orobat, kokaleku hori justifikatzeko erabilitako irizpideak eta obra egin bitartean kokaleku hori aldatu nahi izanez gero nahitaez bete beharreko

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

baldintzak. Instalazioetan edo haien kokalekuan aldaketaren bat egiteko, obraren zuzendaritza fakultatiboaren berariazko baimena beharko da.

f) Obra barruan eraikuntza- eta eraispen-hondakinak biltegiratzeari, maneiatzeari, bereizteari eta, hala dagokionean, beste kudeaketa-lan batzuk egiteari loturiko proiektuaren betebehar tekniko berezien agiriko betekizunak.

g) Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa egiteko aurreikusitako kostuaren zenbatespena. Kostu hori proiektuaren aurrekontuan sartuko da, kapitulu bereizi batean.

h) Sortuko diren hondakin arriskutsuen inbentarioa.

8. JABETZA KENTZEKO AZALERAK, JABEAK ETA ALDI BATERAKO OKUPAZIOA ZEHAZTUTA. MEMORIA ETA PLANOAK

Lurzatien zerrenda eta dagokien planoa jasoko ditu, aldi baterako desjabetu eta/edo okupatu beharreko azalerak zehaztuz.

5. LIZITATZAILEEK ESKURAGARRI IZANGO DUTEN DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Baldintza teknikoen plegu honetaz aparte, lizitatzaileek ondokoa izango dute eskuragarri:

- BI-3447 errepidea Aulestiko zeharbidean berrantolatzeko aurreproiektua (2024ko apirila).
- Plano tekimetrikoa.
- Azterlan geoteknikoa.
- Eremu bakoitzari dagozkion bi faseen mugaketa-planoa.

Aulesti, 2025eko ekainaren 25ean.

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus